

## **35/02 SUMARIOARI BURUZKO HAUSNARKETAK. EPAIKETA POLITIKO GEHIAGORIK EZ, ZENTZUGABEKERIA JUDIZIAL GEHIAGORIK EZ**

Datorren 2013ko urriaren 17an Espainiako Entzutegi Nazionaleko Zigor Salako Bigarren Atalak hasiko duen epaiketa, 35/02 Sumarioarena alegia, zeinetan berrogei pertsona epaituko dituzten, HERRI BATASUNA eta BATASUNAKO mahai nazionaletako kideak eta EUSKAL HERRITARROK alderdiko buruzagi nabarmenak tartean, **sekula hasi behar ez zen eta sekula ere epaiketa fasera iritsi behar ez zen auzi bat da.**

Susmo, espekulazio eta polizia txostenek elikatutako hipotesietan bakarrik oinarritzen den zigor prozedura bat da. Txosten horiei adituen frogabideen izaera eman nahi zaie, baina inolako egiaztapenik gabeko aieru hutsak baino ez dira. Eta hori, pertsona batzuen zigorra eta gizarte laidoa lortzeko asmo zuzenarekin, sistema jakin baten etsaitzat hartuak izan direlako edo ETAREN postulatu politiko batzuekiko hurbiltasun ideologikoa izan dezaketelako. Haatik, ikerketa guztian ezin izan zaie aurkitu erakunde terroristarekiko lotura organiko edo kolaborazioko egitate zehatz bakar bat ere. Baina helburu jakin hartarako, zigor legeko tipoak gainezkatu eta erakunde terroristaren kontzeptua behar bezain beste zabaltzen dute, “inguru” soziologiko bat irudikatu arte, hurbiltasun ideologikoak, kulturalak edo begikotasunak egotzirik.

“Herriko Tabernen” sumario honetan berrogei pertsonen aurkako akusazioa altxatu da. Horietako hiruri (Arnaldo Otegi, Rufino Etxebarria eta Joseba Permach) erakunde terroristako buruzagi mailako kidea izatea leporatzen zaie, beste hogeiri kide izatea eta beste hamazazpiti kolaboratzaile izatea. Hamabi, hamar eta zortzi urteko kartzela zigorrak eskatzen dira, hurrenez hurren, gehi zigor osagarriak.

Sumario hau Baltasar Garzon epaile instruktoreak hasi zuen 2002 urtean eta **hamaika urte beranduago egingo da epaiketa.**

Laburki, zera da egozten zaiena, orduan legalak ziren Ezker Abertzaleko erakunde politikoetako buruzagi edo kide izatea, legezkoak ziren Herri Batasuna, Batasuna edo Euskal Herritarrok alderdietakoak adibidez, edo kultur-, kirol- nahiz gastronomia-elkarteen zuzendaritzatan egotea, horietan ere talde horien inguruko kideren bat zegoenean. Elkarte hauek, orduan legezkoak izanda eta erregistro administratibo guztietan izen emana egonda, publikoari irekitako lokalak zituzten, eta horietan, beste jende askoren artean, modu zabalean Ezker Abertzalea deitu dezakegun eremu ideologikoko jendea sar zitekeen.

2003ko martxoaren 27ko epaiaren bitartez, Auzitegi Goreneko Sala Bereziak Herri Batasuna, Euskal Herritarrok eta Batasuna legez kanpo utzi zituen, orduan berriki onartutako 6/2002 Alderdi Politikoen Lege Organikoa aplikatuta. Epaiak ez zion lotu inolako delitu-jokabide pertsonalik legez kanpo utzitako alderdien buruzagi edo kide aktibo izanari, ez erakunde terroristako kide modura -buruzagi edo kide- ez eta kolaborazio modura ere. Ondorioz, ez zen inolako eginbiderik bideratu prozedura horretatik zigor arlora.

Auzitegi Gorenak erakunde politiko hauek legez kanpo uzteko epaiketa izapidetzen zuen bitartean, Garzon epaileak hamaika pertsona atxilotu zituen eta Herriko Taberna deituriko lokal askoren miaketa eta agirien konfiskatzea agindu zuen. 2002Ko maiatzaren 3an atxilotuak espetxeratzeko autoa eman zuen, Herriko Taberna horien kudeaketa eta ustiaketaekin lotutako zenbait delitu ekonomiko egotzita: PFEZ, Sozietateen Zerga eta BEZaren gaineko iruzurra, Gizarte Segurantzaren aurkakoa, kontabilitate bikoitza eta, gainera, erakunde armatuaren kide izatea, azken honek ematen baitzion Herriko Tabernen eguneroko ekonomian esku hartu eta ikertzeko eskuduntza.

Horrela, auzi orokor moduko batean, ehun eta hamalau Herriko Taberna miatu zituen eta kontabilitateko eta bestelako hainbat agiri konfiskatu, bai eta gestoria bat (BANAKA) eta ostalaritzako gaien hornitzaile bat ere, horietako elkarte edo Herriko Taberna batzuk euren bezero zirelako. 2002Ko abuztuaren 26an, Auzitegi Gorenak erabaki zezakeenari aurre hartuz, HB-EH-BATASUNAREN jarduerak eten zituen Garzonek.

Epaitegiaren eta poliziaren ekintza hau arrazoitzeko orrialde bakarreko agiri bat erabili zuten epaileak zein polizia txostenek: **“Reunión de responsables de Proyectos Udaletxe”** (Udaletxe proiektuen arduradunen bilera”) izenburua zuen agiri bat, egile jakinik gabea, ustezko bilera baten aktaren itxura dauka, baina ez da agertzen zein lekutan egin zen bilera hori, zein egunetan, zein pertsonek hartu zuten parte. Eta idatzi horretan jasotzen diren proiektuetatik inork ez daki zeintzuk gauzatu ziren benetan, zenbat denbora iraun ote zuten, norik bideratu ote zituen, nola, noiz, non, norekin, ezer. Agiri bera erabili zuten 18/98 sumarioan AEK sartzeko, eta Estatuaren Kontuhartzaitza Nagusiaren administratzaile judizial batek bi urtetan kontrolatu eta gero, akusazioek inolako funtsik ez zutelara eta aipatu “Udaletxe Proiektuen” gaineko ezer zehaztu ezin zitekeela argi geratu zen. Berdin gertatu zen Egunkariarekin, eta zortzi urteko sumario baten ostean, absoluziozko epai batek amaitu zuen auzia, objektibitate eta inpartzialtasunik gabeko polizia-txostenetan oinarritutako instrukzioak gogor kritikatu zituena, gainera. Kutsatutako polizia-txostenak aurkezteko teknika makur hori Udalbiltza auziko epaiak ere kritikatu zuen. Sumario horietan guztietan, 35/02 sumarioan bezala, delituak leporatzeko helburuarekin idatzitako polizia-txostenak dira oinarritzako “FROGA”. Sumarioan hainbat pasartetan ageri dira polizia-txostenen uste eta ondorio hutsalak, horrelako prozesuetan poliziaren jardura oinarritu behar duten inpartzialtasun eta objektibotasun izpirik gabe (Prozedura Kriminaleko Legeko 2. artikulua). Epaille Instruktoarak, gero, zuzenean jasotzen ditu poliziaren uste hutsal horiek bere ebazpenetan, inolako azterketa kritikorik egin gabe. Aldez aurretik finkatutako kontakizun bat jasotzen duten polizia-txostenak dira, irudikatutako hipotesi batean oinarritutako kontakizuna, KAS erakundeko norbaiten bitartez ETAK zuzenduriko egitura ekonomiko bat omen zegoela, baina inolaz ere egiaztatutako datu edo gertaerarik jaso gabe. Hori guztia, bilera bakar bat zehaztu gabe, Udaletxe proiektu horien ordezkari bakar bat identifikatu gabe, ETA finantzatzeko edo ETAK zuzendutako operazio ekonomiko bakar bat zehaztu gabe.

Sumario hau epaiketa fasera iritsi da, Herriko Tabernen jabe diren elkarte eta erakundeei inolako erantzukizun zibilik eskatu gabe. Baina euren ondasunak konfiskatzea eskatzen dute. Ez elkarteei ez euren administrariei ez zaie egozten tabernen

jarduerarekin lotutako deliturik. Baina egintza bakar bat ere zehaztu gabe, ETA finantzatzen zutela adierazten dute.

Azken finean, epaiketa politiko berri baten aurrean gaude. Etsaiaren Zigor Zuzenbidearen printzipioak aplikatuta, gerora legez kanpo utzitako alderdi politiko batzuen buruzagiak zirkulazio politikotik at utzi nahi dituzte, zigor penal handiekin, alderdi horiek oraindik legezkoak ziren garaian horien buruzagi edo kide zirela oinarri, baina ETArekin lotutako egitate bakar bat ere adierazi gabe, ez ETAREN buruzagitarik, ez kidezarik, ezta finantzazio egintzarik ere.

Zigor prozeduraren neurrigabeko erabilera baten aurrean gaude, inkisizio izaera duena, auzi orokor baten izaera, aukera politiko bat, iritzi batzuk, ideia politiko jakin batzuk aniztasun politikoaren erroik atera nahi dituen. Alta, ideia horiek beren horretan, nahiz eta eremu politiko berri bat eta lurraldearen independentzia nahi duten, zilegiak eta posibleak dira demokrazian, eta horrela onartu behar dira, beti ere bitarteko demokratikoen bitartez bideratzen direnean.

Laburbilduta, espetxe zigor handiak eskatzen dituzte epaitutako gertaeren garaian legezkoak ziren erakunde politiko batzuen buruzagi eta kideei, inolako frogaz gabe, ETAREN jardura bortitzaren erantzule direla dioen ustezko kontakizun bat eraikitzen duten polizia-txosten batzuen oinarri hutsarekin. Xede horretarako, erakunde terroristaren kontzeptu zabal eta hedagarri bat sortu zuten artifizialki, Zigor Zuzenbidean nahitaezkoak diren egitaterik egon ez arren eta Zigor Kodean jasotzen diren jokabideen definizioa ere aldatu gabe, kondenazko epaia lortzeko asmo hutsarekin. Erakunde terroristaren kontzeptu zabal horretan, hainbat eta hainbat legezko elkarte ETAREN inguru sozial edo ideologikoan daudela adierazten dute polizia-txostenek. Halako zentzugabekeriak non, adibidez, adierazten dute erakunde publikoetatik at egindako euskararen sustapen oro ETAREN aginduak jarraituta egiten dela. Horrela izan da posible adieraztea, asmatutako eszenategi horretan, Egunkaria, AEK eta ikastolak ETA-KASen tresna direla (18/98 eta Egunkaria sumarioak) eta erakunde horien buruei ETAREN kide izatea egozte. Pentsamolde berdinari jarraiki, egitura ekonomiko bat dagoela eta hainbat eta hainbat elkarte ETAREN "inguru" horretan (Zigor Zuzenbidean existitzen ez den kontzeptu batetan) sartuak daudela adierazi dute. Asmakizun berdina erabiltzen dute orain Herriko Taberna moduko lokalen jabe diren elkartei hipotesi bera aplikatzeko. Astakeriak maila negargarria iritsi zuen Instrukzioko Epailaren autoetariko pasarte honetan:

**"Militantes de esa formación (HB-EH-BATASUNA) y dirigentes de ella, han sometido presuntamente a la población originaria de otras partes de España, residentes en territorio vasco, a un estado de segregación tal como para que, a título de ejemplo, en los últimos doce años, se haya podido producir una masiva alteración de los certificados de nacimiento de los niños de la principal ciudad del País Vasco, Bilbao, que por razones puramente accidentales derivadas de que el principal hospital maternoinfantil de Vizcaya se encuentra en Baracaldo, municipio habitado principalmente por población de inmigración, han hecho constar falsamente como lugar de nacimiento Bilbao, para evitar que los nacidos arrastren de por vida en su documento de identidad el "estigma" de haber nacido en un lugar no lo bastante euskaldún; hecho que pudo estar relacionado con la publicación de**

**una nueva norma que regulara la situación, la Ley 4/1991 de 10 de enero (art. 16) y art. 68 del Reglamento del Registro Civil aprobado por Real Decreto 1063/1991, de 5 de julio".**

Sumario osoan ez dago bestelako eginbiderik, delitu modura tipifikaturiko gertaera frogagarriekin, poliziaren kontakizun hau egiaztatzen duenik. Kontakizunak ez du susmoaren eta espekulazio hutsaren muga gainditzen. Legeak tipifikaturiko gertaera zehatzak, eta ez susmo soilak, epaitzen dituen Zigor Zuzenbidean ezin da onartu halako osagaiak dituen sumariarik osatzea.

Horregatik, zera ondorioztatu behar dugu, 35/02 sumarioa hasiera-hasieratik auzi orokor neurrigabeko bat izan zela, zentzugabekeria bat. Etsaiaren Zigor eta Prozedura Zuzenbidearen legez kontrako praktiken ikuspegitik bakarrik uler daiteke, eta inolaz ere justifikatu. Oinarrizko askatasunak eta aniztasun politiko goitik behera urratzen ditu.

Historiaren une honetan, argi eta garbi gelditu da ETA erakunde terroristaren jarduera armatua amaitu dela eta Ezker Abertzalearen inguruko erakunde eta alderdi politikoek errefusatu egiten dituztela esku hartze politikorako prozedura ez demokratikoak. Halaber, jakina da gaur egun, publikoa eta nabarmena, sumario honetan auziperatutako batzuk ekarpen handia egin dutela ETAk borroka armatua utz dezan eta euskal gizartea bere historiaren aro berri eta itxaropentsu batean sar dadin, guztiok demokratikoki eraiki behar dugun aro berri batean.

Auzi honen instrukzioan hainbat irregulartasun eta gehiegikeria egin dira: beharrik gabeko atxiloketak, justifikaziorik gabeko inkomunikazioak, pertsona bakoitzarekiko loturarik gabeko askatasun gabetzeak, pertsona bakoitzaren egoerarekin ere loturarik ez duten milaka eurotako fidantzak, kontrol neurriak, hala nola blokeaturiko kontu korronteak, Estatuaren mugetatik ateratzeko debekuak, aldika sinatzeko betebeharra, txosten bidegabeak... Gehiegikeria hauek hamar urte baino gehiago iraun dute, eta neurrigabekeria horien menpe egon dira auzipetutakoak denbora luze horretan, kriminalitate zantzu seriorik gabe. Horrela, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean eta Espainiako Konstituzioan onarturako oinarrizko printzipio demokratikoak eta funtsezko eskubideak urratu ditu sumario honek: aniztasun politikoa (EK 1-1. eta 6. artikulua), askatasun ideologikoa (EK 16. artikulua eta GEEH 9.a), askatasun pertsonala (KE 17. eta GEEH 5. artikulua), legezkontasun printzipioa eta arau zehatzaileen atzeraeragin ezina (EK 9. eta GEEH 17. artikulua), defentsa eskubidea (EK 24 artikulua), frogarako eskubidea (EK 24 artikulua), berme guztiak dituen epaiketa zuzena eta defentsiagabeziarik gabekoa, epe arrazoigarri batean (EK 24. eta GEEH 6. artikulua) eta ez dadin bereizkeriarik gerta auziperatuen aukera ideologikoengatik egilearen zigor zuzenbidea aplikatzen zaielako (GEEH 14. artikulua), bai eta proportzionaltasun printzipioa ere aurreko eskubide horietan guztietan (zuzenbidearen printzipio orokorra).

Egun, sumario hau eta hastear dagoen epaiketa auzi politikoa dira, euskal gizartean aukera, ideia eta ikuspegi ezberdinen aniztasuna eta oinarri demokratikoen bidez elkarbizitza esparruak eraiki nahi ditugunoi zuzendutako eraso.

Horregatik guztiagatik, balore hauek ere terrorismoaren aurkako eta ETaren izatearen beraren aurkako herri-oinarri komuna osatzen duten neurri berebean, gizarte zibiletik ideologia eta aukera politiko guztietako pertsonak gonbidatzen zaituztegu, zuen ahotsa gurearekin bat egin dezazuen, **behin eta betiko**:

- **ez dadin epaiketa politiko gehiagorik egin;**
- **eskandaluzko instrukzio bidegabeetan oinarritutako epaiketa guztiak artxiba daitezzen;**
- **prozedura judizial guztietatik etsaiaren zigor zuzenbidearen aplikazioa desager dadin;**
- **aniztasun politikoa eta elkartzeko, adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezzen;**
- **elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar ditzagun.**

Bilbon, 2013ko uztailearen 8an.

Sinadurak:

1. Joxerramon Bengoetxea (Zuzenbideko Teoriako Irakasle Titularra; Lege Soziologiaren Nazioarteko Erakunde zuzendari ohia eta EBko Justizia Auzitegiko Letratu ohia)
2. Félix Cañada (Abokatua)
3. Xabier Ezeizabarrena (Abokatua)
4. Mariano Ferrer (Kazetaria)
5. Angel Gaminde Montoya (Abokatua)
6. Pedro Ibarra (Zientzi politikaren Katedraduna [erretiro duna])
7. Maddalen Iriarte (Kazetaria)
8. Iñaki Lasgabaster (Zuzenbideko Katedraduna)
9. María José Virto (Zuzenbideko Doktorea, Zuzenbide penalaren espezialista)
10. Paul Rios (Lokarri)
11. Feli Marin (Abokatua)
12. Txema Montero (Abokatua)
13. Nazario Oleaga (Abokatua [Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren Dekanoa]) (.../...)

14. Mirentxu Purroy (Kazetaria)
15. Rafa Sainz de Rozas (Zuzenbide Penalaren Irakasle Unibertsitarioa)
16. Esteban Umerez (Abokatu)
17. Ramon Zallo (Komunikazioaren Katedraduna)